



www.begiko.com

© Testua: 2001, JASONE OSORO IGARTUA

© Argitalpen hau:

2020, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-19-3

Lege-gordailua: M-16313-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Hirugarren argitalpena: 2020ko maiatza

Hamalautik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega,

Álvaro Recuenco eta Laura Ruiz



Liburu hau egiteko erabili diren lehengaiak birziklagarriak dira, eta jasangarritasunaren, ekonomia zirkularraren eta energia-kudeaketaren alorreko Europako arauak betetzen dituzte.

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektualak dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (CentroEspañol de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Jara

Jasone Osoro

Azaleko irudia: Alex Macho

begiko

Ihintzari

Jaitsi zait

Kuleroak gorritz tindatuak zituen Jarak. Esnattu zenean konturatu zen eta, berak gogoratzen zuenez, gauean ez zen errotuladorearekin aritu marrazten. Ez zituen amaren ezpainetakoak lapurtu muturrak gorrituta ea printzesa zirudien ikusteko. Ez, berak zekiela, bazuen garaia. Hamahiru urte bete berriak zituen. Estreinako musuekin amets egiten hasia zen. Eta gerezien zukua zirudien zipriztin hark gauza bakarra izan behar zuen: hilekoa. Jarak umea izateari laga zion. Orain nagusiagoa, helduagoa sentitzen zen. Berezia.

—Ama... —lotsati hasi zuen esaldia, kostata ateratzen zitzaizkion hitzak. Ez zekien nola esan.

—Egun on, Jara. Gosaria prest duzu. Gaur laranja zukua egin dizut.

—Ama, zera...

—Ez duzu aurpegi ona, neska. Gaur ere amesgaiztoak?

—Ez ama, ondo egin dut lo.

Aitak, ohi zuenez, arrapaladan agurtu zituen ama-alabak.

—Zuek bai nire kutunak! Aio, bikote, banoa! —umore ona zuen aitak. Jara harro zegoen.

10 —Beti presaka, gizona. Bazkaltzeko geratuko al gara?

—Deituko dizut, maitia. Bilera bat daukat eta...

—Zoaz, zoaz...

Aitak musu bana eman zien sukaldean ziren bi emakumeei. Bai, Jarak bere burua amaren parean ikusten zuen orain. Amarekin identifikatua sentitzen zen eta milaka, milioika galdera zituen berari egiteko.

—Ama, hilekoa jaitsi zait.

Amari kafea eztarrian korapilatu zitzaion. Eztul txikia egin zuen, sinetsi ezinik edo.

—Jaitsi al zaizu? Ene, bada! Jara, baina, baina...

—Ama, ez zara sermoiekin hasiko, ezta? Zeinen azkar pasatzen den denbora, zahartzen ari zarela eta horrelakoak...

—Zatoz, maitia.

Jararengana hurreratu eta besarkada estu bat eman zion.

—Minik ba al duzu? Sabela arraro somatzea normala da, zu lasai. Lagako dizkizut nik konpresak, eta kulero zikinengatik ez arduratu eta, eta...

—Ama, lasai. Badakit non gordetzen dituzun oihalak eta kendu dizut pare bat.

11

Orduan, amak alabaren aurpegia bi eskuekin hartu zuen eta begira-begira geratu zitzaion.

—Zeinen handia egiten ari zaren, maitia! Ai, prexioxa!

—Tira, lagako didazu gosaltzen? Berandutu egingo zait eta ez duzu eskolara berandu iristea nahiko, ezta?

—Kontuz mutilekin.

—Zer?

—Tira, orain ez daukagu astirik baina geroxeago hitz egingo dugu, ados?

Musu bat eman eta alde egin zuen.

—Jara! Ez ahaztu izebaren etxera joan behar duzula bazkaltzera! Entzun? Aitak eta biok kanpoan bazkalduko dugu!

—Bai, ama, lasai!

Alde egin zuenean sentsazio arraroa izan zuen Jarak. Sarri geratzen zen etxean bakarrik baina egun hura, martxoaren 20a, berezia zen. Bainugelara joan eta ispiluaren aurrean paratu zen, aurrez aurre. Betiko begiak zituen, grixak. Ileanen neurriak ez zuen ez gora ez behera egin, bellarri azpian doi-doi. Ezpain lodiak. Masail beteak.

12 Polita zen, hala iruditzen zitzaion behintzat, eta aitak hainbestetan errepikatzen zion bera zela ipuinetan printzeak maitemintzen zituen dama, ze azkenerako sinetsita zuen. Amaren kaxoitik karminik gorriena atera zuen eta ezpainak margoitu zituen. Ispiluak eskaintzen zion irudia gustukoa zuen, erakargarria. Orduan Urkorekin akordatu zen. Begiak itxi zituen eta ispiluari musu bat eman zion, beste aldean bere maitearen ahoa topatuko zuelakoan edo. Apartatu zenean, ispiluak Jararen ezpainak zituen tatuatuak. Neskak irribarre egin zuen.

Sekretuak, sekretuak, sekretuak

Eskolara bidean Ihintzarekin egin zuen topo Jarak. Bera zuen lagun mina, gelakidea, konplizea eta sekreturik txikiena ere kontaktzen zion. Irrikaz zegoen Ihintzari bere azken sekretua kontatzeko eta besotik helduta hitz egin zion.

—Ihintza, gauza bat kontatu behar dizut.

—Zerbait gertatu al da?

—Bai.

—Ona?

—Bueno, ez dakit.

—Nola ez dakizula? Neska, berehala nabaritzen da zer den ona eta zer ez.

—Zuk uste?

—Ez, ala? Hara, zer izan daiteke gaur egun gerta dakigukeen gauzarik onena?

—Niretzat...

—Urko musukatzea!!!!

—Kar, kar!

Neska biak barrez lehertu ziren.

—Eta txarrena...

—Txomin lerdo horrekin gimnasia izatea goizeko lehen orduan! —bota zuen Ihintzak.

—Ostras!

—Zer?

14

—Ez nuen gogoratzen gaur gimnasia geneukala.

—Eta?

—Ihintza, sekretutxo bat kontatu behar dizut, baina ez gero barra-barra zabaldu, aditu?

Ihintzaren begiek dir-dir egin zuten. Izugarri atsegin zuen sekretuak entzutea.

—Lasai, neska. *Goazeneko* posterragatik zin egiten dizut ahoa grapekin josiko dudala.

—Ala, ze exageratua zaren, tia!

—Ai, Jara, hitz egiteko modu bat da! Ea, bota. Zer gertatu da?

Jarak alde batera eta bestera begiratu zuen. Ez zuen inguruan inor egoterik nahi. Esateko zeukana Ihintzari bakarrik kontatu nahi zion, berea zuelako, oso berea, intimoa, berezia. Horregatik, belarrira xuxurlatu zion esaldia.

—Hilekoa jaitsi zait.

Ihintzari irribarrea marraztu zitzaion aurpe-
gian eta Jara besarkatu egin zuen.

—Neska! —Jarak harrituta begiratzen zion la-
gunari—. Ez da horrenbesterako!

—Ez dela horrenbesterako?

—Ez al duzu ulertzen?

—Ulertu, zer? Aurrerantzean hilean behin tri-
pako minak jota egongo naizela?

—Bai zera!

—Bai, zuk egin barre. Amak ere abisatu dit eta...

—Ai, Jara! Batzuetan ze ezkorra zaren! Mina-
rentzat aspalditxo asmatu zituzten pilulak eta,
gainera, ez duzu zertan minik sentitu.

—Ba, nik ez diot abantailarik ikusten honi. Far-
dela jantzita sekula baino umeagoa sentitzen naiz.

—Hilekoa jaitsi zaizu eta horrek esan nahi du
emakumetzen hasi zarela, bularrak haziko zaizki-
zu, gerria finduko...

—Ama, ze beldurra!

—Urko liluratuta lagako duzu!

—Urko! Horrek ordenagailuen bihurtuneak
eta azala bakarrik maite ditu!

—Kar, kar, kar... Ez neska! Bera ere espabila-
tuko da, zu lasai.

—Ihintza, disimuluan begiraidazu ipurdia...
Zera, konpresa igartzen al zait?

Ihintza lagunaren atzeko aldean jarri zen eta bakeroetara begiratu zion.

—Keba! Batere ez!

—Benetan?

16 —Ezetz! Halere, ahizpak baditu tanpoiak eta pare bat hartuko diot. Askozaz erosoagoak omen dira eta horiek bai ez direla igartzen!

—Tanpoiak? Ez dakit. Nola sartuko dut tanpoi bat... hortik.

—Jara!

—Bale...

—Bihar jolas-orduan gimnasioko komunean geratuko gara eta neuk lagunduko dizut.

—Ihintza, ixo! Arkaitz dator atzetik. Ez deskuidatu ezertxo esaten, bale?

—Lasai, andretxo —ironikoki esan zuen azken hitza.

—Ze graxioxa zaren!

—Kar, kar, kar...

—Aupa neskak! Zer, sekretutxoekin orain ere?

—Keba! Ez, ezta, Jara?